

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRI EREDUAREN, HIRIGINTZAREN, ETXEBIZITZAREN,  
GARBIKETAREN ETA INGURUMENAREN SAILA

**Tokiko Gobernu Batzarraren 2026ko maiatzaren 15eko erabakiaren laburpena: horren bidez, Gasteizen etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko laguntza-deialdia, 2026-2027 aldirako onetsi zen**

BDNS(Identif.): 910373.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/910373>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen kontsulta daiteke:

#### **Lehena. Onuradunak**

Vitoria-Gasteizko udalerriko etxebizitzaren eta lokalen jabe edo gozamenadunak diren pertsona fisikoak, Gasteizko Erdi Aroko hirigunean etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko indarrean dauden laguntzen deialdeari atxikitako eremua izan ezik.

Gaur egun udal-dirulaguntza kobratzeko eskubidea aitortuta ez duten edo deialdian aurreikusitako ekintzengatik udal-laguntza jaso ez duten pertsona fisikoak.

#### **Bigarrena. Helburua**

Vitoria-Gasteizko udalerriko etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak birgaitzeko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak emateko prozedura eta baldintzak ezartzea, 2026-2027ko ekitaldietarako.

#### **Hirugarrena. Oinarriak**

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko maiatzaren 15ean hartutako erabakiaren bidez onetsi ziren, eta ALHAOn argitaratuko dira.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Lau milioi eurokoa (4.000.000,00 €) da deialdiaren zuzkidura.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Eskabideak aurkezteko epea deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da eta 2027ko abenduaren 31ean amaituko da edo aurreko egun baliiodunear.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 26a

*Hirigintzako zuzendari nagusia*

**MIKEL INCHAURBE OCERINJAUREGUI**